

Finka zk.	Titularraren izen eta helbidea	Desjabetzapena Azalera m ² -tan	Beh. Bet. Zortasuna m ² -tan	Aldi Baterako Atzematea m ² -tan	Katastroko Datuak		
					Poligonoa	Etxadia	Partzela
N.º Finca	Nombre y domicilio del titular	Expropiación Superficie m ²	Servidumbre de Paso m ²	Ocupación Temporal m ²	Datos Catastrales		
					Poligono	Manzana	Parcela
0024/0	FLORENCIA ALBERDI ALBERDI EVARISTA ALBERDI ALBERDI MARIA LOURDES ALBERDI ALBERDI HDROS. DE LUISA ALBERDI ALBERDI HDROS. DE GREGORIA CENARRUZABEITIA MARDARAZ	21,00	—	—	004	—	028 B
0025/0	PASIONISTAS DE SAN PABLO DE LA CRUZ INTERMOBILIARIA, S.A.	—	—	38,00	005	—	003 —
0026/0	JOSE DOMINGO AMPUERO OSMA	—	—	74,00	008	—	060 —

(1-727)

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 104/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 7koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 23ko 182/2014 Foru Dekretua aldatzen da. Azken dekretu horren bidez, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortzen da eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 23ko 182/2014 Foru Dekretuaren bidez, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortu eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautu zen.

182/2014 Foru Dekretuaren 4. artikuluan arautzen da nor dagoen behartuta faktura elektronikoa erabiltzera, eta 1. zenbakian, berriz, zerrendatzen da zer erakunde hornitzaile dauden behartuta faktura elektronikoa erabiltzera eta dagokion sarrera-puntu orokorrean aurkeztera. Nolanahi ere, beste edozein hornitzailek ere faktura elektronikoa egin eta igorri ahal izango ditu, hala nahi izanez gero.

Gai hau funtsean dinamikoa denez gero —hala adierazten da 182/2014 Foru Dekretuaren azalpen-zatian bertan, esaten baita sistemaren helburuetako bat arlo honetan sor litezkeen berrikuntzetara ahalik eta arinen egokitu ahal izatea dela— eta sistema aplikatzean izandako esperientzia positiboa izan denez gero, komenigarria da faktura elektronikoa erabiltzera behartuta dauden hornitzaileen katalogoa zabaltzea. Hala, urte batean, faktura guztiak batuz, fakturatan 5.000 euro edo gehiago egin dituzten hornitzaileak aurrerantzean behartuta egongo dira fakturak formatu elektronikoa igortzera.

Bestalde, ikusi da aukera dagoela hobekuntza operatiboak egiteko hornitzaile berak faktura elektronikoa zein paperezkoak erabiltzen dituenean. Hala, beharrezko xedapenak hartzen dira sor litezkeen anomaliak errotik kentzeko, eta zehazten da faktura elektronikoa bat aurkeztu duten hornitzaileak aurrerantzean behartuta egongo direla formatu bera erabiltzera. Era berean, kontratazio-prozeduren kasuan, prozedura exekutatzeko faktura guztiek formatu elektronikoa izan beharko dute.

Arestian aipatutako xedapenen ezarpena erraztearren, beharrezkoa da behartuta dauden hornitzaileen erregistro bat sortzea, kontrol-neurri gisa erabiltzeko, 2. artikuluan zehaztutako erakundeetako bati ondasun bat entregatzeagatik edo zerbitzu bat emateagatik formatu elektronikoa erabiltzera behartuta dauden hornitzaileen betebeharra kontrolatzearren.

Foru dekretu honen xedea 182/2014 Foru Dekretuaren 4. artikulua hori aldatzea da, aurreko lehen zatian ezarritakoaren arabera.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainaren 7ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 104/2016, de 7 de junio, por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 182/2014, de 23 de diciembre, por el que se crea el punto general de entrada de facturas electrónicas y se regula el procedimiento para la tramitación y registro contable de las citadas facturas.

Mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 182/2014, de 23 de diciembre, se creó el punto general de entrada de facturas electrónicas y se reguló el procedimiento para la tramitación y registro contable de las citadas facturas.

El artículo 4 del Decreto Foral 182/2014 se dedica a regular los obligados al uso de la factura electrónica, enumerando en su apartado 1.º una serie de entidades proveedoras que con carácter preceptivo deben utilizarla y presentarla a través del punto general de entrada. Ello sin perjuicio de que cualquier otro proveedor pueda voluntariamente expedir y remitir facturas electrónicas.

El carácter esencialmente dinámico de esta materia, puesto ya de manifiesto en la parte expositiva del Decreto Foral 182/2014 cuando indica que el sistema persigue como uno de sus objetivos el de la rápida adaptación a las posibles novedades que se puedan producir, unido a la experiencia positiva en su aplicación, determina la conveniencia de ampliar el catálogo de proveedores obligados a su uso, de tal manera que aquellos proveedores que en un año remitan facturas por valor total de la suma de todas ellas igual o superior a 5.000 euros, en lo sucesivo estén obligados a remitir sus facturas en formato electrónico.

Por otro lado, se ha detectado la posibilidad de mejoras operativas cuando un mismo proveedor utiliza tanto facturas electrónicas como facturas en papel. Se adoptan las disposiciones oportunas tendentes a la erradicación de las anomalías que se puedan producir, especificando que aquellos proveedores que hayan presentado una factura electrónica quedarán obligados a usar idéntico formato en lo sucesivo. En el mismo sentido, en el caso de los procedimientos de contratación todas las facturas presentadas en su ejecución deberán tener formato electrónico.

Para favorecer la implantación de las disposiciones anteriormente citadas, resulta necesario crear un registro de proveedores obligados como medida de control de la obligación para el uso de la factura electrónica de los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios a las entidades a que se refiere el artículo 2 del Decreto Foral 182/2014.

El presente Decreto Foral tiene por objeto modificar el citado artículo 4 del Decreto Foral 182/2014 en el sentido expuesto en los párrafos anteriores.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 7 de junio de 2016

XEDATZEN DA:

Artikulu bakarra. — Aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren 182/2014 Foru Dekretua, abenduaren 23koa. Haren bidez, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortzen da eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautzen da.

Berridatzi egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 23ko 182/2014 Foru Dekretuaren 4. artikulua (dekretu horren bidez, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortzen da eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautzen da), eta honela geratu da idatzita:

«4. artikulua. — Faktura elektronikoa erabiltzera behartuta daudenak

1. 2. artikuluan aipatzen diren erakundeei ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaile guztiek faktura elektronikoa jaulki eta igorri ahal izango dute.

1.1. Hornitzaileak behartuta daude faktura elektronikoa erabiltzera eta dagokion sarrera-puntu orokorrean aurkeztera baldin eta honelako erakundeak badira

- a) Sozietate anonimoak.
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak.
- c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko erakundeak.
- d) Zerga-araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren erakundeen establezimendu iraunkorrek eta sukurtsalak.
- e) Aldi baterako enpresa-elkarteak
- f) Ekonomia-intereseko elkarteak, Europako ekonomia-intereseko elkarteak, pentsio-funtsak, arrisku-kapitaleko funtsa, inbertsio-funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipoteka-titulaziozko funtsak edo inbertsioen berme-funtsak.

1.2. Faktura aurkezten den urtearen aurreko urtean foru dekretu honen 2. artikuluan zehazten diren erakundeetakoren bati fakturak igorri zizkieten hornitzaileek aurrerantzean faktura elektronikoa igorri beharko dituzte, baldin eta aurreko urteko faktura guztien batura 5.000 euro edo handiagoa bada.

1.3. Foru dekretu honen 2. artikuluan zehazten diren erakundeek sustatutako kontratazio-prozeduretan, hornitzaileak behartuta daude faktura elektronikoa egin eta igortzera, fakturen zentatekoa edozein dela ere.

2. Fakturak 5.000 euro baino gutxiagokoak badira, ez dira nahitaez faktura elektronikoa erabili behar eta ez dira nahitaez faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztu behar.

Nolanahi ere, 2. artikuluan zehaztutako erakundeetakoren bati ondasun bat entregatzeagatik edo zerbitzu bat emateagatik aurreko 1. zenbakiaren arabera faktura formatu elektronikoa aurkeztera behartuta dauden hornitzaileek aurrerantzean faktura elektronikoa erabili beharko dute egiten dituzten ondasun-emate eta zerbitzu-prestazio guztietan.

3. Faktura elektronikoa erabiltzera eta faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztera behartuta dauden hornitzaileen erregistroa sortzen da, zehaztu eta kontrolatzearen nor dagoen behartuta faktura elektronikoa erabiltzera artikulu honen aurreko zenbakietan ezarritakoa betez.

Faktura elektronikoa erabiltzera behartuta dauden hornitzaileen erregistroaren kudeaketa, administrazioa eta mantentzea Ogasun eta Finantza Saileko Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari dagokio.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau 2016ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

SE DISPONE:

Artículo Único. — Modificación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 182/2014, de 23 de diciembre, por el que se crea el punto general de entrada de facturas electrónicas y se regula el procedimiento para la tramitación y registro contable de las citadas facturas.

Se da nueva redacción al artículo 4 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 182/2014, de 23 de diciembre, por el que se crea el punto general de entrada de facturas electrónicas y se regula el procedimiento para la tramitación y registro contable de las citadas facturas, que queda redactado en los siguientes términos:

Artículo 4. — Obligados al uso de la factura electrónica

1. Todos los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios a las entidades a que se refiere el artículo 2, podrán expedir y remitir facturas electrónicas.

1.1. Los proveedores estarán obligados al uso de la factura electrónica y a su presentación a través del punto general de entrada, cuando se trate de las entidades siguientes

- a) Sociedades anónimas.
- b) Sociedades de responsabilidad limitada.
- c) Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española.
- d) Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria.
- e) Uniones temporales de empresas.
- f) Agrupaciones de interés económico, Agrupaciones de interés económico europea, Fondos de Pensiones, Fondos de capital riesgo, Fondos de inversiones, Fondos de utilización de activos, Fondos de regularización del mercado hipotecario, Fondos de titulación hipotecaria o Fondos de garantía de inversiones

1.2. Los proveedores que en el año anterior al que se presenta la factura, remitieron a alguna de las entidades indicadas en el artículo 2 del presente Decreto Foral, facturas por valor total de la suma de todas ellas igual o superior a 5.000 euros, en lo sucesivo estarán obligados a remitir facturas electrónicas.

1.3. Tratándose de procedimientos de contratación impulsados por las entidades indicadas en el artículo 2 del presente Decreto Foral, los proveedores estarán obligados a expedir y remitir factura electrónica con independencia de cuál sea el importe de la factura.

2. Estarán excluidas de la presentación obligatoria de la factura electrónica y de su presentación en el Punto General de Entrada de facturas electrónicas, las facturas por importe inferior a 5.000 euros.

No obstante, los proveedores que en virtud de lo establecido en el apartado 1 hayan estado obligados a presentar una factura en formato electrónico por la entrega de un bien o la prestación de un servicio a alguna de las entidades previstas en el artículo 2, en adelante quedarán obligados al uso de la factura electrónica en todas las entregas de bienes y prestación de servicios.

3. Se crea el Registro de Proveedores obligados a la presentación de facturas electrónicas y de su presentación en el Punto General de Entrada de facturas electrónicas, con el fin de establecer y controlar quienes están obligados al uso de la factura electrónica en cumplimiento de lo dictado en los anteriores apartados del presente artículo.

La gestión, administración y mantenimiento del registro de proveedores obligados al uso de la factura electrónica corresponderá a la Dirección de Finanzas, Presupuestos y Patrimonio, del Departamento de Hacienda y Finanzas.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera. — Entrada en vigor

El presente Decreto Foral entrará en vigor el 1 de julio de 2016.

Bigarrena. — Gaikuntza

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2016ko ekainaren 7an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-729)

Segunda. — Habilitación

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

En Bilbao, a 7 de junio de 2016.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-729)

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 109/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 14koa. Honen bidez, Erakundeen eta Pertsona Fisikoen Erregistroa ezartzen eta arautzen da Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailerako eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailerako.

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez, erregistro bat sortu zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeei zein pertsonari beren nortasun juridikoa eta beren ordezkariena egiaztatzeke —besteak beste— eskatzen zaizkien datuak biltzeko.

Erregistro horren ezarpenak ekarritako onurak begi bistakoak dira. Izan ere, izapideak erraztu eta dokumentazio-errepikapenak kentzeaz gainera, erregistroari esker hobeto kontrolatu daiteke ea Aldundiarekin harremanak dituzten erakunde eta pertsonak eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituzten. Iadanik, 2016ko urtarilean, 18.000tik gora dira erregistratutako erakundeak eta pertsonak.

Bestalde, 2015ean, aldatu egin da Bizkaiko Foru Aldundiaren egitura, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuaren bidez. Berregituraketa horren ondorioz, ESEE (Ekonomi Sustapen Sailaren erakundearen erregistroa) izeneko erakundearen erregistroaz arduratzen diren bi administrazio-unitateetako bat orain Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren barruan dago. Beraz, beharrezkoa da erregistro horren funtzionamendua berrantolatzea.

Funtsean, antzera funtzionatzen dute ESEEk eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako ahalordeen erregistro elektronikoak. Hala, bada, erregistro hori sortu arte, komenigarritzat jotzen dugu erakundeen eta pertsona fisikoen erregistro bat egotea bi sailetarako, hots, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailerako eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailerako, lehen adierazi diren onurengatik, batez ere.

Aurrekoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikulua araberak, foru diputatuei dagokie foru sailaren antolaketa, zuzendaritza, kudeaketa, ikuskapena eta ordezkaritza; horrenbestez, honako hau xedatzen da:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua. — Xedea**

Foru dekretu honen helburua da Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailerako eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailerako Erakundearen eta Pertsona Fisikoen Erregistroa sortzea (ESEPE aurrerantzean), bai eta haren antolaketa-araubidea eta funtzionamendua arautzea ere.

Bi sailen jardunaren oinarri diren laguntza eta diru-laguntzen eskatzaileen edo onuradunen identifikazio-eta deskribzio-datuak jasoko dira erregistroan.

Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 109/2016, de 14 de junio, sobre establecimiento y regulación del Registro de entidades y personas físicas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 61/2010, de 27 de abril, se creó un registro que permitía reunir los datos esenciales exigidos a las entidades y personas del Territorio Histórico de Bizkaia en relación con la acreditación de su personalidad jurídica y de la persona que les represente, además de otros extremos.

Los beneficios obtenidos por el establecimiento de dicho Registro son evidentes. No sólo por la simplificación de trámites y eliminación de reiteraciones documentales, sino también por el adecuado control administrativo de los requisitos exigidos a las entidades y personas que se relacionan con la Diputación. Así el número de entidades y personas registradas a enero de 2016 superaba las 18.000.

Durante el año 2015, se ha producido una reestructuración de la Diputación Foral de Bizkaia, iniciada mediante Decreto Foral del Diputado General 94/2015, de 2 de julio. Esta reestructuración ha implicado que una de las unidades administrativas que estaba integrada en el registro de entidades denominado REPE, ha pasado a formar parte del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. Por lo que se considera necesario reorganizar el funcionamiento de dicho registro.

Básicamente, el funcionamiento del REPE es similar al Registro de electrónico de apoderamientos previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. De esta manera, hasta su creación consideramos conveniente la existencia del Registro de entidades y personas físicas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, sobre todo por los beneficios mencionados anteriormente.

Por todo ello y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, compete a las personas titulares de los departamentos forales la organización, dirección, gestión, inspección y representación del Departamento Foral, en virtud del cual se dispone

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES**Artículo 1. — Objeto**

Es objeto del presente Decreto Foral la creación y regulación del régimen de organización y funcionamiento del Registro de entidades y personas físicas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en adelante REPPE.

Este registro contendrá los datos de identificación y descripción de las personas solicitantes o beneficiarias de las ayudas o subvenciones que constituyen la base de actuación de ambos departamentos.